

# SAMBA ENPRESA

· Errekreatibo sala ·

## IDEIA

Gure enpresa SAMBA deitzen da eta gure ideia sala errekreatibo bat egitea izan da. Durango herrian ikerketak egin ondoren, entretenimendu salarik ez dagoela ikusi genuen eta horregatik entretenimendua proportzionatzen duen sala bat zabaltzea erabaki genuen, denbora txarra egiten dutenean, adibidez, zinera joatea edo etxean gelditzea ez izateko aukera



bakarra. Horrez gain, ikusi dugu gaur egungo umeek, kalera joaten direnengan, mugikorrarekin edo edozein dispositibo elektronikokin egoten direla. Horregatik pentsatzen dugu gela honetara ume asko etorriko direla. Gainera, gaur egungo gazteak eta heldu batzuk asko pasatzen dira dispositibo elektronikoen ere. Orduan, errekreatibo sala adin guztientzako izango da, baina 8 urte baino gutxiago duten umeak beraien gurasoekin joan behar dira eta gurasoak bertan helduz, bertako kafetegian gelditu ahalko dira.

## BALIOA

Gure sala errekreatiboak arrakasta izango du Durangon ez dagoelako horrelako antzekorik. Gure lokalaren helburu nagusia entretenimendua proportzionatzea da, baina, gaur egungo kontsolak nahiko garestiak dira eta entretenimenduaz gain, gure salak kontsola berriekin jolastu ahal izatea proportzionatzen dizkie kontsolak erosi ezin dituzten pertsoneri.



Adin guztietarako jokoak izango ditugu, gaur egungoak eta baita joko zaharrak ere. Jokoak izateaz aparte, jendeak erabiltzen ez dituen jokoak, gure salan utzi ahal izango dituzte diru truke eta bertan, jokoak lehen eskuz erosi ezin izan dituzten pertsonen, bigarren eskuz erosi ahal izango dituzte. Sala osoan izango ditugun hainbat kontsolak berriak izango dira eta gure bezeroen segurtasuna sustatzeko abisu bat jarriko dugu makina bakoitzean: “Denbora luze bat jolasten egon ondoren, deskantsatu”. Salaren diseinua modernizatu egin dugu, hau da, lehen zahar itxura zuen, baina orain modernizatu egin dugu eta makina zaharrak izateaz gain, kontsola berriak ere jarri ditugu, adibidez, Play-Stationa.

## SEGMENTAZIOA

Gaur egun, teknologia munduan oinarritzkoa da. Munduko ia leku guztietan erabiltzen da eta gero eta gehiago. Horregatik, jende asko egun guztia ematen du mugikorrarekin edo edozein dispositibo elektronikoein. Kalean gazte koadrila asko ikusten ditugu mugikorrarekin jolasten eta, gure ustez, gela hau egiten badugu, koadrila haiek gure errecreatibo gelara etorriko dira eguna pasatzera. Gure bezero nagusiak gazteak izango direla pentsatzen dugu, baina nagusiagoentzako jolasak ere izango ditugu.



## ELKARTEAK

**Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko:**

Aliantza mota honen bitartez, bere jardura aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortzen dute. Adibidez, gure salan, makina eta kontsola asko behar izango ditugu, eta beharrezko izango da guretzat gauza horiek proportzionatzen dizkigun enpresa batekin paktu bat egitea. Ematen digutenaren truke, guk publizitatea egingo diegu.



## DIRU-ITURRIAK/IRABAZI ITURRIAK

Lokalean errecreatibo sala bat egiteko diru sarrera oso handia izango da, hau da, diru asko gastatu egin behar dugu makinetako eta beste hainbat gauzetako gastuak daudelako. Diru hau lortzeko, gure enpresako kide guztiek bankutik diru kantitate zehatz bat atera beharko genuke, eta diru gehiago lortzeko, kanpainak egin beharko genituzke eta beste hainbat ekintza dirua lortzea eragingo dituena. Diru hau lortutakoan, egin beharreko lehenengo gauza izango zen lokalaren



berrikuntza, hau oso zaharra delako eta gure negozioa aurrera ateratzeko gure lokalaren estetika ona izan behar da. Honek suposatuko du hastu handi bat, hau da, gure gastuen %35-a. Ondoren, makinak

erosi beharko genituzke, hauen prezioa begiratzan egon gara eta haien kostuagatik ondorioztatu ahalko genuke gure gastuen %20-a gastatuko genukeela. Inbertsioen gastu handi bat da baita ere, baina ezin daiteke egin errekreazio sala bat errekreazio makinarik gabe. Baita ere, argia eta ura ordaindu beharko genuke. Honetan, ezin genuke jakin zenbateko kostua izango duen, baina informatu egin gara eta gutxi gora-behera %25-a ordaindu beharko genuke. Baita ere, udaletxean baimen batzuk lortu behar ditugu ezer egin baino lehen eta honek %5-eko gastu bat ekarriko du. Eta azkenik, telebistan iragarpen bat jarri egingo bagenu, %15eko gastua izango genuke. Honetan ordaindu beharko genuke, baina denborarekin iragarpenaren ideia funtzionatzen badu, gure errekreazio salara jende asko hurbilduko litzateke eta gastu hori berreskuratu genuke. Hori lehenengo urtean izango zen, baina hurrengo urteetan gutxiago ordaindu beharko genuke hainbat gastu egongo ez direlako.

## KANALAK

Lehenik eta behin, bezeroak sala errekreatibo hau zabaldu dugula jakiteko, kartel bat jarriko genuke Santa Maria plazan. Leku horretan jende asko egoten da eta, kartela ikusiz gero, jendea seguru hasten dela sala honetaz hitz egiten eta, azkenean, batzuk seguru etorriko direla. Jendeak erosketak egiteko salara etorri



behar dira. Jendea makinekin jolasteko salara etorri behar dira, hau da, ezin dira internetetik jolastu. Horrez gain, joko bat erosi nahi badute, ezin dute internetetik erosi, azkenean, gure enpresa Durangon oinarritzen delako eta alferrikako gastuak izango ziren. Gainera, jendea joko bat internetetik erosi nahi badute, web gune ospetsu asko daude eta, gure ustez, jende ez zuen guregatik erosiko.

## HARREMANAK

Bezeroa mantentzeko eta berriak erakartzeko, taldeko deskontuak izango ditugu eta aldiro joko aldaketak egingo ditugu. Kentzen diren jokoak, bigarren eskuz saltzeko utziko ditugu eta horrela norbaiti asko gustatu bazaio horietako batzuk erosteko aukera izango dute. Saiatuko gara, asteburu bakoitzean, jolasten dutenen artean zozketak egitea. Hau eragingo du lokalera gero eta jende gehiago etortzea eta



jolastea zozketak irabazteko eta sariak mota guztietakoak izango dira. Adibidez, Fan And Serious-ko eta Euskal Encouter-ko sarrerak ematen. Horrez gain, txapelketa asko egingo ditugu beste sari batzuekin. Gaur egun, jolasen txapelketak oso famatuak izaten dira eta, horren ondorioz, jende gehiago etorriko da egunak pasatzera. Amaitzeko, errekreatibo honetan hainbat deskontu dauzkagu produktu guztietan sozio txartela ateratzen baduzu, hilabetean 10€ balio duena.

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gu teknologian adituak gara. Txikitatik gauza elektronikoekin gaude eta, horrez gain, errekreatibo askotan egon gara. Orduan, badakigu zer behar duen sala bat ondo joateko, hau da, bezero moduan egon garelako. Errekreatibo hau aurrera ateratzeko, gure lagun batekin kontaktatuko dugu, jolasteko makina enpresa bat



duelako. Berarekin hitz egin ondoren geratu gara deskontu nahiko handi bat egingo duela eta dira asko aurreztuko dugu. Gutxi gora behera 20 makina ekarriko dugu. Baita ere, bideojokoak jolasteko hainbat marketako makinak ekarriko ditugu, hala nola, Wii-a, Play-Stationa, etab. Honek jendea errekreatibo dendara etortzea sustatuko du hainbat jende makina hauetara jolasten duelako etxean, beraz, etxetik irtetzen dira eta beste leku batean jolasten dute lagunekin.

## JARDUERAK

Bezeroekin harremanetan jarri nahi gara, beraz, uste dugu horretarako garrantzitsua dela dendaren diseinua edota han dauden makinena. Baita ere, garrantzitsua izan ahal daiteke dendaren webgune bat egitea eta hau ondo apainduta egotea eta errekreatibo denda iragartzeko kartelak ondo apainduta egotea.



Gure enpresa eta errekreatibo denda aurrera ateratzeko, funtsezkoak diren jarduera batzuk, ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma eta sareko jarduerak dira. Jarduera guztiak ezin izango ditugunez landu, kanpoan ditugun enpresa batzuen esku utziko ditugu. Hauek egiteak hainbat lehentasun ditu. Hainbat gauza ezin izango ditugu ekoiztu, beraz, ekoiztearen lanak beste enpresa batzuen esku utziko ditugu. Izan ditugun edo izango ditugun arazoak konpontzeko gai izan gara eta ideiak argi izateko gai izan gara baita ere.

# KOSTUEN EGITURA

Sala errekreitiboa aurrera eramateko hainbat kostu izango ditu. Alde batetik, makinak eta makinaren mantenimendua izango ditugu, eta, beste aldetik, jokoak erosten ditugunean gastatzen dugun dirua. Errekreatibo batean aurrera eramateko kontsola, makinak eta teknologiako mota desberdinetako hainbat tresna egon behar dira. Gaur egun tresna horiek ez



dira batere merkeak, kostu handia izango da, baina azken finean negozio hau ondo eramateko kontsola hoberenak eta mota desberdinetakoak egon behar dira jendea joateko eta gero onurak ateratzeko. Beste aldetik kontsolen eta teknologia tresnen mantenimenduak, mantenimendu hauek egiten dira noiz behinka



zerbait apurtzen denean edo denbora zehatz bat pasa ondoren. Errekreatibo honetan astero kontsola guztiak begiratzeko ditugu zorroztasunez ez apurtzeko eta denbora gehiago irauteko, baina mantenimenduaren kostua minimoa da bakarrik garbitzen ditugu guztiak eta batzuetan pieza txikiak aldatzen ditugu. Enpresa honetan beste kostu bat dira jokoak, hainbat joku berri erosi behar ditugu gero gure bezeroei eskaintzeko. Joku hauek erosten dira txinatar enpresa bati non joku guztiak oso merkeagoak dira eta kalitatea oso honekoa, horrela kostu txikiagoa izango da eta orduan saltzerakoan joku berriak eta antzinako jokoak onura asko izaten du SAMBA enpresarako. Amaitzeko gure azken kostua eta handiena dira gure langileak. Aste normal batean bi langile kontratatu ditugu, ez dira asko baina aste normaletan oso jende gutxi joaten delako eskoletan dauzelako, orduan ez dira behar hainbat langile bezeroak atenditzeko eta bakarrik zabaltzen dugu arratsaldetan. Asteburuetan lau langile ditugu, egun hauetan jende portzentaia asko igotzen delako, egun guztian beteta dagoelako eta egun hauetan diru asko ateratzea behar saiatu behar dugu. Asteko langileak 600€ soldata dute hilero denbora gutxi lan egiten dutelako (lan honen gain beste bat izan ahal dute) eta asteburuetan dauden langileak 660€-ko soldata izango dute hilabetero.